

KLORO ESKAPEA, 'ELECTROQUÍMICA' ENPRESAN

Alkateak Jaurlaritzarekin bilera "urgentea" egingo du Electroquímico eskapeen gaia aztertzeko

■ Udalaren esanetan, Electroquímica enpresan astlehenean izandako istripua bezalakoak "nahiko maiz gertatzen ari dira eta arriskuan jartzen dute Epeleko auzotar eta langileen seguritatea".

ASTELEHEN goizean Epeleko Electroquímica enpresan kloro isuri bat izan zen istripuz. Enpresaren arabera 1.5 kilo inguruk aldegin zuen eta balbula batzuetako haize konprimatuak huts eginda gertatu zen eskapea. Epele inguruko zenbait jendek eta langilek arnasa hartzeko arazoak izan zituen, eta azkurea begietan eta sudurrean.

SOS Deiak-ek emergentzia plana jarri zen martxan, eta ez zen inor ebakuatu be-

harrik izan. Joan den irailean enpresa berean beste eskape bat izan zen, eta orduan Oialumeko jendea kejaratu zen. Orduan, 5-10 kilo klorok aldegin zuela esan zuen enpresak.

Barne Saila eta Ingurugiro Departamendua

Astleheneko kloro eskapea dela eta, Hernaniko Udalak adierazi du Joxan Rekondo Alkateak goi mailako bilera urgente bat konbokatuko duela gaia aztertzeko. Bilera horre-

tan, Alkatearekin batera, Jaurlaritzako Barne Saila eta Ingurugiro Departamendua bilduko dira. Udalak azaldu du Electroquímican nahiko maiz izaten direla tankera horretako eskapeak eta horrek arriskuan jartzen duela auzotarren eta Epele inguruko langileen segurtasuna.

Iraileko eskapean gertatu bezala, Udalak espediente informatiboa zabaldu du enpresak izan litzaketen ardurak argitzeko. Horretaz gainera,

Ingurugiro Sailburuordetzarekin batera, Udalak aztertu egingo du Electroquímicoak ea betetzen ote dituen bere aktibitate-lizentziak eskatzen dizkion neurri guztiak. Eta betetzen ez baditu, Udalak agindu du Ingurugiro Legean datozen neurriak hartuko dituela.

Udalak orain dela gutxi aire neurketak egiteko makina erosi berria du eta esan du kontrola oraindik eta gehiago zorrotzko duela. □



Musika Jubilatutako etxean

Jubilatu Etxean kontzertua

JUBILATU Etxean akordeoi kontzertua eta Larramendi koruaren emaldia izango dira bihar, ostegunean. Kontzertua arratsaldeko 19:30etan izango da, Jubilatutako etxean bertan. □



Juan Mari Larrarte librea uzteko Hernanin egindako protesta ekitaldiaren irudia.

Juan Mari Larrarte fiantzapean libre

■ Del Olmo epaileak 12.000 euroko fiantza jarri dio hernaniarrari ■ Guardia Zibilak atxilotutako beste 8 pertsonak ere libre gelditu dira ■ Gaur 18:00etan omandaldia egingo zaie Martin Ugalde Parkean.

JUAN MARI Larrarte eta kulturgintzako beste 8 pertsonak librea utzi ditu Juan Del Olmo epaileak, baina, 9ak inportatu gisara azaltzen dira sumarioan. Larrarteri 12.000 euroko fiantza jarri dio epaile-

ak. Buruntzape S.L.ko kudeatzailea 14:00etan atera zen kalera eta bere esanetan berriz ere euskal kultura susmoetan jarri dute, eta aurrera begira ere lanean jarraituko duela adierazi du.

Guardia Zibilak ostegun goizaldean atxilotu zuen Larrarte, etxean, eta geroztik inkomunikatuta eduki dute. Del Olmok "dirua zuritzea", "ezkutetzea" eta beste zenbait delitu leporatu dizkiote 9

pertsonei. Baina, epaileak ez du ez horren frogarik ez azalpen gehiagorik eman, sumarioa sekretupean dagoela argudiatuta. Gaur 18:00etan omandaldia egingo zaie Martin Ugalden. □



Mikel Peruarenak poesia liburuarekin.

Mikel Peruarenak 'Eguraldiaz Hizketan' poesia liburua aurkeztuko du bihar

MIKEL Peruarenak *Eguraldiaz Hizketan* poesia liburua bihar aurkeztuko du Hernanin. Ekitaldia Karkabako plazan izango da gaueko 21:00etan eta aurkezpenarekin batera poesi emanaldia ere izango da. Errezitala Andoni Tolosa kantautoreak eta beste zenbait pertsonak hartuko dute parte. □


IÑAXASPE
Arrandegia
Antziola 5
Tel.: 943 330 365
Mobi.: 653 74 10 97
20120 Hernani

BERTAKO FRUTA ETA BARAZKIAK
Erkerro
Fruituak
Bertako produktuek
Fruitu exotikoak
Telefonoz eskatzeko:
943 33 32 75
Orain helbide berrian gaituzu:
Antziola 5

Aran
Opariak
Dekorazioa
Bitxiak
Mueble auxiliarra, kuadroak,
pelutxeak, pitxiak eta abar
aurkituko dituzu ARANen.
Zatoz eta zerorrek ikusi.
Elkano 35 - 20.120 HERNANI
Tel.: 943 33 03 25


Marka onenak daukagu:
TRANGO
TERNUA
COLUMBIA
THE NORTH FACE
SALOMON
BOREAL
TUCKLAND
KAMET
CHIRUCA
Nafar kalea 24 - 943 333724 - Hernani | Nagusia 18 - 943 590372 - Andoain

Musika Bandak Agur Jaunak jota agurtu zuten atzo Luis Berrondo musikoa

■ Luis Berrondo astelehenean hil zen kotxe istripuan A-15 bariantean ■ Berrondok klarineta jotzen zuen eta 25 urte zeramazkien Hernani Musika Bandan.

LUIS Berrondo Ayerza Hernani Musika Bandako kideak familia, lagun eta herritar askoren agurra jaso zuen atzo iluntzean. Luis Berrondok astelehen goizean galdu zuen bizia, Andoain eta Iruña arteko bariantean. Goizeko 07:15ak aldera, kotxea bidetik atera zen eta malkarrean behera erori.

Arratsaldeko 19:00etan izan zen Luis Berrondoren arimaren aldeko hileta elizkizun jendetsua. Ondorenean, Musika Bandak *Agur Jaunak* jota agurtu zuen bere kidea. Berrondok klarineta jotzen zuen Bandan, eta Armonia eta konposizio ikasketak ere eginak zituen. 25 urte zeramazkien Bandan, eta Santa Zezilian Udalaren oroigarria jaso behar zuenetako bat zen.



Luis Berrondoren omenez, Musika Bandak Udaletzeko arkupeetatik jo zuen Agur Jaunak.

Minutuko isilunea

Bestalde, Bandak igandean Sandiusterrin kontzertua ematekoa zuen, eguerdiko 12:00-

etan. Kontzertua mantendu egingo du eta hasieran minutuko isilunea egingo du Berrondo zenaren oroimenez. □

Argazki mikologikoak bihar Biterin

URRETXA Mikologia Elkar- teak antolatu dituen jardunaldiak bihar bukatuko dira. Asteartean bezalaxe, Urretxak Ilgarren argazki lehiaketan parte hartu dutenen argazkiak botako dituzte bihar, ostegu-

na, Biterin, 20:00etatik aurrera.

Urretxak igandean banatu zituen Argazki lehiaketako sariak. Marisol Yabek irabazi zuen, Jesus Azkuen aurretik eta Juan Jose Agirre gelditu zen

hirugarren. Diapositibarik onenaren saria, berriz, Maite Salinasek jaso zuen.

Argazki lehiaketaz gain, Urretxak hitzaldia eta perretxiku biltzeko irteera egin du, eta aldizkaria ere atera du. □

Tamarak, 11 urteko ume batek minbizia du eta familiak diru laguntza eskatu du operatzeko

■ Lasarteko umeak minbizi 'galopantea' du eta familiak 8 miloi pta behar ditu operatzeko ■ Kutxa: 2101 / 0096 / 15 / 0124293325.

TAMARA 11 urteko umea da eta maiatzean minbizia harrapatu zioten belaunean. Bere inguruko pertsona batek Kronikari adierazi dioenez, Tamarak berehala, kimio sesioak jaso zituen, baina, tratamenduak ezin izan dio gaixotasuna gelditu. Gainera, minbizia *galopantea* du, eta oso

azkar ari zaio zabaltzen.

Familiaren arabera, Iruñan ematen diote hanka eta bizia salbatzeko esperantza. Baina, Tamarak tratamendu hori jasoko badu familiak 48.000 euro behar ditu, eta jendeari laguntza eskatu dio. Lagundu nahi duenak goian azaltzen den Kutxako kontu korrante

horretan egin lezake bere aportazioa. Oraingoan, 6.500 euro paseak bildu ditu familiak.

Dagoeneko Iruñan eta defentsaz oso ahul

Tamara joan den ostirala ezkerotzik Iruñean dago ingresatuta, eta defentsa aldetik oso ahul dago. □



Umeak jolasean ostiralean, Plaza Berrian.

Kale animazioa eta graffiti lehiaketa Berriak elkarrekin antolatuta

■ Berriak antolatuta, jende asko bildu zen aurreko astean eta ostiral honetan graffiti lehiaketa egingo da.

BERRIAK Merkatari eta Ostalarik Elkarrekin antolatuko kale animazioaren barruan gaztelu puzgarriak jarri zituzten plazan, ostiralean. Ume saila ibili zen gazteluetan saltoka.

Bestalde, datorren ostiralean Graffiti lehiaketa izango

da Berriak antolatuta. Arratsaldeko 17:00etatik 20:00etara izango da eta irabazleak 120 euroko saria jasoko du; bigarrenak, 75 euro; eta hirugarrenak 50 euro. Izen ematea Andre kalen, Bodegan eta Kitton egin behar da. □

MENDIRIZ MENDI

Eskolarteko Finalista Eguna, igandean Mutrikin

DATORREN igandean Gipuzkoako Eskolarteko XVIgarren Mendi Lehiaketa egingo da. Aurten Mutrikin egingo da eta Hernanitik joan nahi dutenek Mendiriz Mendirekin joateko aukera dute. Prezioa,

umeentzat 2 euro da eta helduentzat 4 euro. Izena ematea ostiralerako egin behar da. Hamaiketako norberak eraman behar du. Autobusa Atsegindegitik atearako da goizeko 08:00etan. □

JASOTA BEZALA

"Eguraldiaz hizketan" poema liburuaren aurkezpena.

Osteguna, 23, gaueko 9:00etan Karkabako enparantzan.

Garai ilun hauetan Argi distiratsua, Fokoak, foroak eta planak Ikusten ez didate uzten Itsutu egiten naute. Iluntasunean nahiago, Dirdiratzten duen Baina itsutzen ez nauen

Kandela xumearen Argi hauskorra. Dirdiratzten duten Hitz hauskorrak Dira Mikelen poemak. Garai ilun hauetan tsutzen ez dutenak Bideak ikusten Erakusten dutenak, Nire baitan argia Pizten dutenak, Eskertu behar direnak.

Josu Arrieta

Hernaniko Kronikako laguntzaile izan nahi?

Urtean 30 eurogatik egunero *kronika* dohainik

Telefonoz hartuko dizkizugu datu guztiak:

☎ 943 330899 - 656 703814

Bonoa zeuk bete nahi baduzu, jaso leku hauetan: Conde (Urbietan), Zinkoenea, Iruretagoiena (Kale Nagusia), Kronika (Larramendi 11) eta Dobera (Larramendi 11)

ZERBITZUAK

☎ TELEFONOAK

▶Taxiak: 943 550093
▶Udalzaingoa: 943 333288
▶DYA: 943 464622
▶Autobusak: 943 556662
▶Anbulatorioa: 943 006666
▶Jokalarri anonimoak: 943 331103

✚ FARMAZIAK

▶Eguez: Correa Perkaiztegi 8 ☎ 943 551933
▶Gauz: Atxa-Orbea Lasarte. Hipodromo 6 ☎ 943 363549

IRAGARKI MERKEAK

Emakume bat behar da etxeko lanak egin eta umea zaintzeko, goiz eta arratsalde: 07:30etatik 11:00etara eta 16:30etatik 19:00etara : 658 73 88 32 (iluntzean)

Emakume bat behar dugu etxeko lanak egin eta umea zaintzeko. Interesatuak deitu: 943 55 27 79